

Moderatzailearen sarrera

Mahai honetan publikoan dagoen pertsonen gehiengoa gizarte ala solidaritate izaerako borondatezko asoziazionismoaren *mundukoa* dela pentsatuz kokatzen naiz. Publiko horrekin debatitzeko Bolunta-k hiritar-partaidetzarekin zerikusia duen panorama zabala, zeinek dakigun ala ikusiko dugun bezala, hein handi batean eragiteaz gainera garrantzitsua gertatzen baitzaigu, hobeto ulertzen asko lagun gaitzaketen hiru pertsona gonbidatu ditut.

Nire interpretazioaren arabera, denbora-gune honetan nahi duguna boluntariotza eta asoziazionismoaren dimentsio politikoa azpimarratzea da. Elkarreak eta boluntarioek prozesu politikotako agente partaide bezala, egoera hori esfera publikoan lan egiten duten beste hainbat agenteekin banatuz ulertzen badira bere deiera solidarioari hobeto erantzun diezaioketela ulertzera gonbidatzen zaigula uste dut.

Horregatik beharrezkoa da hiritar-partaidetzako mundu horretako mugimenduak eta joerak ezagutu eta aztertzea. Mahai honek hiritar-partaidetza ala partaidetzazko demokraziaren kontzeptu horiek pixka bat hobeto ulertzen laguntzea espero dut. Gure inguruneke hiritar-partaidetzaren egoeraren halako diagnostiko bat banatu ahal izatea ere espero dut, partaidetza-prozesu horiek hobetzen lagunduko diguten hainbat giltza nabarmentzeaz gainera.

Hain zuzen ere, lehendabiziko beharra eskuartean dugun gaia argiago ikusteko modua bilatzea baita, Camus-ek zioen bezala gauzak era okerrean aipatzea munduko ezbeharrak areagotzea delako. Hiritar-partaidetza eta partaidetza-demokrazia zer direnari buruzko argitzea eskala ezberdinetan egin daitekeela uste dut. Partaidetza-demokraziari buruz ari garenean eskala handiagoan kokatzen garela dirudi, hiritar-partaidetzaren prozesuak politika-demokrazia sistema berak partaide kalifikazioa jaso ahal izateko modukoak izan behar dutela esaten ari garela dirudi. Hala ere, sistema politikoaren eraldaketa bati buruz hitz egin aurretik ere, eskala txikiagotan, gure makineri publiko eta orokorrean gizarte-bizitzaren funtzionamendua aldatzen joango diren partaidetza-prozesuak jar daitezke martxan.

Hiritar-partaidetza dinamikak hobeto ulertzen, momentu honetan gai hau zein testuingurutan planteatzen den ulertzen, gure elkarriketetan eta gure topaketetan maizago zergatik azaltzen den ulertzen lagunduko digula ere uste dut. Estatuaren konfigurazio, botere publiko, administrazio publikoen krisi-une bat bizitzen ari garela uste dut, zeinek ondorengoak bezalako fenomenoak eragina jasaten baitute:

- Informazio- eta komunikazio-teknologia berriek zilegi egiten duten lotura-gehikuntza eta ekonomia-, politika- eta gizarte-ehunaren sare berregituratzea.
- Giza ibilbideak indibidualizatzea eta gizarte-arrisku berriak agertzea.
- Legitimotasuna eta eliza, partidu politikoak ala sindikatuak bezalako gizarte-bizitzan tradizioz zentralak diren erakundeen balioa zalantzan jartzea.
- Masa-kontsumoaren dinamikarekin loturiko komunikabideen indarra.
- Emakumeen paper berriak ala migrazio-mugimenduak bezalako fenomenoak eraginez familiak eta erkidegoak berregituratzea.

Testuinguru honetan botere publikoek bere legitimotasunari dagokionez behar berriak dituzte eta gizarte-agente ezberdinek (baita elkarreak eta boluntariotzak ere) partaidetza-aukera berriak aurki ditzakete. Bestetik Estatuak, bere gizarte-zerbitzu eta gizarte-babeserako hornitzaile dimentsioan, estrategia aliantza eta gestio-formula berriak bilatzen ditu. Honek

guztiak panorama beste era batera marrazten du eta horregatik gobernantza, sareko gobernu, gestio publiko berria, loturazko administrazioa eta abarri buruz hitz egiten da.

Eskenatoki konplexu horretan agente mota bakoitzak bere papera aurkitu beharko du. Zerbitzugintzara ala administrazio publikoarekin elkarlanera, ala salaketa eta sensibilizaziora ala gizarte-mugimenduekin lotura izatera eta abarrera orientaturiko borondatezko erakundeak egongo dira. Eta agente bakoitza beste agenteekiko era berezian konfiguratu eta kokatuko da. Berdina esan dezakegu hiritar bakoitzari dagokionez, zeinek bere aurrean partaidetza- era eta –dinamika ezberdinak izango baititu. Partaidetza-forma eta –dinamika hauek, ikusiko dugun bezala, oso ezberdinak izan daitezke bere artean.

Hala ere gauza bat da gai hauei buruz hitz egitea eta beste bat eguneroko bizitzan nola bizi izaten diren. Batzutan fenomenoari buruz ikertu ala idazten dugunean badirudi ezagugaitza bilakatu arte gozatu ala makillatu egiten ditugula. Hori dela eta mahai honetan benetan existitzen diren partaidetza-prozesu eta partaidetza-prozesu horietako antolaturiko boluntarioen presentziari buruzko halako diagnostikoa egiten ere saiatuko gara.

Agian, gizarte-partaidetza arloko gure atzerapen historikotik, errealitate zatikatu, ahul, atomizaturikoa ezagutu ahal izango dugu bai borondatezko ekintza zein hiri-partaidetzakoa. Agian oso interesgarriak eta aurrerakoiak diren politika eta erabakien aurka doazen partaidetzako gizarte-prozesuak ere ezagutu ahal izango ditugu. Hala ere, agian errealitate horretan berrikuntza, indarra, sistematizazioa, aniztasuna, kalitatea, espermentazioa, aukera...ere aurkitu ahal izango ditugu. Agian partaidetza-prozesuen errealitatea askotan pertsonak, banakako subjektuek dakartzagun jarrera eta gaitasunetan jokatzeko dela ere jakin ahal izango dugu. Ez dakit...

Azkenik, gure elkarrizketa antolaturiko boluntariotzako¹ mundutik...hiritar-partaidetza sustatzeko hainbat giltza ala pista banatuz amaitu ahal izatea espero dut.

Edozein kasutan, mahaiko moderatzaile bezala, ez dut gehiago luzatu behar. Esandakoa sarrera moduan nahikoa izan bedi, errazten eta motibatzen laguntzeko, zein mahaian hemen dagoen talde osoari ondoren zabalduko zaion elkarrizketa hasteko baliagarria izatea espero baitut. Gure elkarrizketan atsegintasuna bilatzen saia gaitzen eta batez ere saia gaitzen benetan sinesten hitz egiteak gure praktikak eta egoera nahiz egiturak, zeinetan parte hartu izaten baitugu, aldatzeko balio duela.

Fernando Fantova

¹ Ez dugu hemen gehiago luzatu nahi. Nahi duenak www.fantova.net -n duela gutxi aurkezturiko "Politika publikoetako partaidetza-prozesuak: praktikatik eginiko gogoetak" izenburua daraman txostena nahiz eskuartean dugun gaiarekin loturiko beste hainbat ekarpen irakur ditzake.